

Errektorearen 14/2015 Agindua, irailaren 16koa, Deustuko Unibertsitateko Ohorezko Maileguren Programa kudeatzeko prozedura ezartzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Deustuko Beka Programaren osagarria da Ohorezko Maileguren Programa, ikasketa espediente bikainak dituzten ikasleei Deustuko Unibertsitateko ikasketak finantzatzeko aukera ematen diena. Hartara, aukera berdintasuna sustatzen du, baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonak ikasketak egiteko aukera izan dezaten.

Programa hori martxan jartzeko, garrantzi handiko finantza erakundeen laguntza izan da. Erakunde horiek sinatuko dituzte maileguren kontratuak ohorezko maileguren onuradun diren ikasleekin. Deustuko Unibertsitateak ere finantza-ahalegin esanguratsua egiten du, finantza eragiketen berme emaile izanik. Horrela, ikasleek edo euren familiek ez dute bestelako berme pertsonal edo errealik aurkeztu behar.

Ohorezko maileguek Deustuko Unibertsitatean matrikulatutako ikasketen kostuaren % 80ra arte finantzatzeko dute eta bateragarriak izango dira ikasleek izan ditzaketen bestelako laguntza publiko edo pribatuekin; baina laguntza guztien batura ez da inoiz izango ikasketen kostuaren % 100 baino gehiago.

Honako Agindu honen helburua da Ohorezko Maileguren Programaren kudeaketa prozedura ezartzea, denboran zehar irauteko bokazioa izanik. Irizpide eta baldintza orokorrak ezarriko ditu ohorezko mailegu horiek izapidetzeko eta jasotzeko, eta urte bakoitzean egiten den deialdian arautuko dira maileguotan eragina izan dezaketen gainerako zehaztasun eta gorabeherak.

Horregatik, beharrezko izapideak beteta, Unibertsitateko Elkarteko eta Izaera eta Misioko errektoreordearen ekimenez, eta Zuzendaritza Kontseiluak eman beharreko txostena izanik, honakoa XEDATZEN DUT:

1. Ohorezko maileguren helburua.

1. Ohorezko maileguren helburu orokorra da ikasketetan goi mailako errendimendua duten ikasleei Deustuko Unibertsitatean eskaintzen diren graduako eta unibertsitate masterreko ikasketak eta doktoregoko ikerraldia finantzatzeko laguntza ematea.
2. Deustuko Beka Programaren osagarri dira; eta, bi laguntzak batuta, ikasketen kostuaren % 80raino finantzatzeko aukera ematen dute, finantza-kosturik gabe eta ikaslearen lepotik finantza-bermerik izateko obligazio gabe.
3. Deustuko Unibertsitateak bermatuko ditu ohorezko maileguaren modalitatearen bidez egindako finantza-eragiketak eta berak hartuko ditu bere gain eragiketa horietan sortuko diren finantza-kostuak. Hartara, ohorezko maileguak jasotzen dituzten onuradunek unibertsitate sistemako unibertsitate publiko batean ikasketa berak egiteko matrikulatzen diren ikasleen pareko finantza-ahalegina egingo dute.

4. Ohorezko maileguak Deustuko Beka Programan ezarritako laguntzen osagarriak dira eta, era berean, bateragarriak dira beste erakunde publiko eta organismo ofizialek ematen dituztenekin. Baina ikasleak jasotzen dituen laguntza guztien batura ezin izango da izan matrikulatutako ikasketen kostuaren % 100 baino handiagoa.

2. Mailegu-hartzaileentzako betekizun orokorrak

1. Ohorezko mailegu deialdira biltzen diren ikasleek Deustuko Unibertsitateak eskaintzen dituen ikasketetan egon beharko dute matrikulatuta eta Deustuko Beka Programaren barruko laguntza eskatuta eduki beharko dute, graduko eta unibertsitate masterreko kasuetan.

2. Doktoregoko ikasketetarako, ikasleek doktoregoko ikerraldian ikasturte oso batean matrikula eginda eduki beharko dute edo onarpen finkoa eduki beharko dute. Era berean, curriculum eta egoera sozioekonomikoa agiriz frogatu beharko dituzte, unibertsitate master ikasketa ofizialetan eskatzen diren baldintza berdinetan.

3. Baldintza akademikoak eta irizpide ekonomikoak.

1. Baldintza akademikoak.

Pertsona hauek eska dezakete ohorezko mailegua:

a) Deustuko Unibertsitateko graduko ikasketetako ikasle sartu berriek, baldin eta sarbidea eman dieten ikasketetan (batxilergoan edo parekoan), batez beste, batez beste 8ko nota edo goragokoa badute, ikasturtean 60 kreditutan matrikula egiten badute eta lanean hasteko modua ematen dien unibertsitateko titulaziorik ez badute.

b) Deustuko Unibertsitateko graduko titulu-takako bigarren mailatik gorako ikasleek, baldin eta ikasturtean 60 kreditu gutxienez matrikulatuta badituzte, edo ikasketa plana osatzeko behar diren kreditu guztiak matrikulatuta badituzte, aurreko ikasturteetatik gairiditu gabeko krediturik ez badute, eta ikasketa horien ikasketa espedientean 7ko batez besteko nota edo goragokoa badute.

c) Deustuko Unibertsitateko unibertsitate masterreko eta doktoregoko ikasketetan matrikulatutako ikasleek, baldin eta lehendik graduondoko edo doktoregoko titulaziorik ez badute eta ikasketetarako sarbidea eman dien ikasketen espedientean 7ko batez besteko nota edo goragokoa badute. Horrez gain, aintzat hartuko dira curriculum vitae, ikasketak egiteko eskatzaileak adierazitako motibazio akademiko eta pertsonalak eta Deustuko Unibertsitatearekin duen lotura.

2. Irizpide ekonomikoak.

Muga ekonomikoak Unibertsitateko web orrian argitaratuko dira ikasturte bakoitzeko ohorezko maileguen deialdian.

3. Balorazioa.

Ohorezko maileguen onuradunen zerrenda egiteko, maileguak emateko irizpide nagusia akademikoa dela kontuan izanik, aurkezten diren mailegu eskaeren banakako balioespena egingo du Beka Batzordeak. Balioespen horretan kontuan hartuko da Deustuko beketan zenbat eman zaien ohorezko maileguen eskatzaileei, baita kasu bakoitzean batzen diren egoera akademiko eta ekonomikoak ere.

4. Maileguaren zenbatekoa.

1. Ohorezko maileguaren bidez finantzatzen den gehienezko zenbatekoa Deustuko Unibertsitatean matrikulatutako ikasketen kostu osoaren % 80 izango da.
2. Mailegua lehenengoz matrikulatzen diren kredituetan bakarrik aplikatuko da, eta ezin izango da erabili gairiditu gabeko, baliokidetutako, aitortutako edo antzerako irakasgaien kostua finantzatzeko.

5. Eskabideak aurkeztea eta epea.

1. Eskabideak horretarako dagoen inprimakian aurkeztuko dira. Inprimakia ikasleen esku egongo da DUko webean eta bi campusetako Beka Zerbitzuan.
2. Ohorezko Maileguen Programa egoki kudeatzeko, Beka Zerbitzuak beharrezkoak iruditzen zaizkion beste agiri batzuk aurkezteko eska dezake.
3. Mailegu eskaera aurkezteak esan nahi du baimena ematen zaiola Deustuko Unibertsitateko Beka Zerbitzuari ikasleak ematen dituen datu akademikoak eta ekonomikoak egiazkoak diren egiaztatzeke, bere eskura dauden bitarteko guztien bidez.
4. Beken Zerbitzuak ezarritako epeen barruan aurkeztu beharko dira eskaerak. Unibertsitateko web orrian argitaratuko da ikasturte bakoitzeko epea.

6. Eskabideen hautaketa.

1. Beka Batzordeak banan-banan aztertu eta balioetsiko ditu aurkeztutako eskaerak, ikasturte bakoitzean 50 eskaera gehienez aukeratzeko.
2. Beka Batzordeak hartzen dituen erabakiak behin betikoak izango dira eta, ondorioz, ezin izango da helegiterik aurkeztu.

7. Eskabideen kudeaketa.

1. Beka Batzordeak aukeratutako mailegu eskaerak dagokion finantza erakundera bidaliko ditu Deustuko Unibertsitateko Beka Zerbitzuak, aztertuak izan daitezen.
2. Beka Batzordeak beste hautagai batzuk proposatu ahal izango ditu, baldin eta finantza erakundeak duen kupoa estaltzen ez bada, egindako arriskuen azterketetan edo justifikatutako arrazoietan oinarrituta zenbait eskaera onartu ez dituelako. Arrazoi horiek Beka Zerbitzuari jakinarazi beharko zaizkio 10 eguneko epean, arazo material edo formala konpontzeko. Finantza erakundeak aipatutako epean jakinarazten ez badio, onartu egingo da eskaera.

8. Ebazpena eta ikasleari jakinaraztea.

1. Finantza erakundeak aztertutako eskabideak Deustuko Unibertsitateko Beka Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio, mailegu eskaeraren ebazpena ikasleari adieraz diezaion.
 - a) Ebazpena aldekoa bada, Beka Zerbitzuaren eta ikaslearen artean beteko dira barneko izapideak, mailegua finantza erakundearekin formalizatu aurretik. Nolanahi ere, nahitaezkoa da ikasleak ohorezko adierazpen bat sinatzea, eredu normalizatuan, baita bizitza aseguru bat ere, Deustuko Unibertsitateak ezartzen dituen baldintzetan.

b) Ebazpena kontrakoa bada, Beka Zerbitzuak artxibatu egingo du mailegu eskaeraren espedientea.

2. Beka Zerbitzuak hitzordua adostuko du ikaslearekin eta bilera finantza erakundeak Bilboko campusean duen bulegoan egingo da eta, Donostiako campusean bada, zehaztuko den tokian.

3. Beka Zerbitzuak ohorezko mailegu programan sartzen den ikasle bakoitzeko agiri bat luzatuko dio finantza erakundeari. Bertan zehaztuko dira pertsona bakoitzari dagozkion finantzazio ezaugarriak.

9. Mailegua finantza erakundean formalizatzea.

1. Maileguak Ohorezko Mailegu Programaren barruan ikasleei finantzaketa emateko atxikitzen diren kreditu erakundeen bidez formalizatuko dira.

2. Ikaslearekin zehaztuko ditu finantza erakundeak mailegua formalizatu eta sinatzeko eguna, tokia eta ordua. Adinez nagusi ez diren ikasleen kasuan, maileguak urtarriean formalizatuko dira.

10. Ohorezko maileguen baldintzak.

1. Ikasturte bakoitzeko deialdian zehaztuko dira ohorezko maileguen baldintzak eta Deustuko Unibertsitateko web orrian argitaratuko dira.

2. Ohorezko maileguak aldi hauek estaltzeko eratuko dira:

a) Ikasketaldia eta gabealdia.

Ikasleak Deustuko Unibertsitatean matrikulatutako ikasketak egiten diharduen tartea eta 2 urte gehiago izaten da.

b) Maileguz erabilitako kapitala itzultzeko aldia.

Deustuko Unibertsitatean matrikulatutako ikasketak ordaintzeko mailegutuan jasotako kapitala finantza erakundeari ordaintzeko ikasleak erabiliko duen denbora.

Ohorezko maileguaren kitapena ikasketak amaitu eta gabealdiaren ondoren hasiko da, eta gehienez 4 urteko iraupena izango du.

3. Aurretiaz amortizazio osoak edo partzialak egin ahal izango dira noiznahi, mailegatutakoa kitatzeko eta baliabideak beste ikasle batzuen mesedetan erabili ahal izateko.

11. Ikasketak ordaintzea.

1. Deustuko Unibertsitateak maileguari dagokion zenbatekoa ordainketa bakar batean kargatuko dio ikasleari ikasturte bakoitzean.

2. Finantza erakundeak jakinaraziko dizkio ikasleari Deustuko Unibertsitateak egiten dituen karguak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Ikasleak ikasketak uztea.

Ikasleak Deustuko Unibertsitateko ikasle izateari uzten badio edo ikasketak bertan behera uzten baditu, finantza erakundeak emandako maileguaren epemuga aurreratzea erabaki ahal izango du. Kasu horretan, ikasleak erabilitako kapitala ordainduz kitatuko du mailegua edo finantza erakundeak hileroko kuota ordaintzeko mailegu bat sinatuko du ikaslearekin –ikasleak onartzen badu– eta une horretan Deustuko Unibertsitateko Ohorezko Maileguak indarrean dituen ezaugarri berdinak izango ditu. Hori guztia, maileguaren kontratuan aurreikusitako epemuga aurreratuko bestelako kasuak eragotzi gabe.

Bigarrena. Ohorezko Maileguen Programaren indarraldia.

Deustuko Unibertsitateko Ohorezko Maileguen Programa indarrean egongo da finantza erakunde kopuru nahikoarekin horretarako lankidetzaz hitzarmenak dauden neurrian.

Hirugarrena. Maileguaren zenbatekoen urteko berrikusketa.

Hasierako mailegua eman ondoren, hurrengo urteetan maileguaren printzipalaren zenbatekoak berrikusiko dira prozedura erraztu baten bidez. Prozedura horretan ikaslearen egoera ekonomikoa eta aurreko ikasturtean izan duen errendimendu akademikoa nahikoa izan den balioetsiko da.

Mailegua jasotzen duen ikasle onuradunak urteko berrikusketa eskatu beharko du, Deustuko Unibertsitateko Beka Zerbitzuak zehazten duen epe eta moduan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Araudia garatzeko gaikuntza.

Arloko eskumena duen errektoreordeari baimena ematen zaio honako Agindu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren neurriak har ditzan.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Agindu hau Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.